

# BAD

**bilbao antzerkia dantza 2002**

bilboko IV. antzerki  
eta dantza  
garaikidearen  
jaialdia

IV festival de  
teatro y danza  
contemporánea de  
bilbao

26/10/02 \_\_\_\_\_ 03/11/02





# AURKEZPENA

Iritsi da, laugarren urtez segidan, BAD – BILBAO ANTZERKIA DANTZA – FESTIVAL DE TEATRO Y DANZA CONTEMPORÁNEA DE BILBAO. Ikuskizun-multzo honen helburua da arte eszenikoetarako grina jendearengana hurbiltzea, horretarako genero-gama zabal bat hartuz. Jaialdi honek sektorerik gaurkoenera eta sortze-lan berrietara zuzentzen du batik bat bere arreta, zirkuitu konbentzionalagoetan ikusten zailak diren proposamenekin eta batez ere jende-mota berria eta, berezi-bereziki, gazte-jendea erakartzen saiatuz.

Bilbon egiten da BAD, urriaren 26tik azaroaren 3ra (9 egun), gaur egungo antzerkiaren eta bestelako proposamen garaikideen inguruan antolatuta, hiriko hainbat leku publiko eta pribatutan. Arriaga Antzokia, Bilborock, La Fundación Aretoa hemengo eta kanpoko talde guztiz ezagunen eta ez hain ezagunen ikuskizun fresko, gaurko eta originalen agertoki izango ditugu.

Ezin uka daiteke gazte-jendeak antzerki eta dantzarako erakusten duen prestasunaz gainera, kosta egiten dela, egia esan, leihatilara hurbiltzea. Horregatik, bada, denon gustuko proposamenak eta sakela guztien neurriko prezioak egongo dira. Sarrera erosi, eseri eta agertokiaren magiaz gozatzea besterik ez da geratzen.

Sortze-lan berriak, opera garaikidea, gizonezkoak dantzan, emakumeak antzezten, aktore famatuak eta hasiberriak. Estreinaldiak, ikastaroak, zuzendari ezagun/goraipatuak, ikusle adituak, testu logikoak eta aldi berean absurduak, gaur egungo gaiak, kezka pertsonalak, barre-algarak, negar-zotinak... Horregatik guztiagatik, bada, urtez urte gero eta bisitari gehiago dituen eta Bilbon Arte eszenikoen erreferentzia-punturik gaurkoena bilakatzen ari den topaleku izan beharko luke BADek.

BADen ikusiko dugu elkar.

# ESKERRIK ASKO MUCHAS GRACIAS

Eskerrak eman nahi dizkizuegu zuei guztioi, **ANTZERKIAREN PUBLIKOA** zaretenoi, hor zaudetelako, eta taulen gainean istorioak kontatzeko parada ematen diguzuelako, eta, jakina, eskertu nahi dugu baita ere BADek 4. urtez segidan Bilbo Antzerkiaren erreferentzia-puntu bilakarazi duten guztien lana. Eskerrak Antzerkia eta Dantza bezalako milaka urtetako bi arteren fruiturik berrienak guregana iritsarazteko ilusioz beterik estreinaldiak eta esperimentuak egiten dituzten **ANTZERKI-TALDEEI**. Eta, nola ez, eskerrik asko **SOINU ETA ARGIZTAPENEN TEKNIKARIEI, SAN FRANTZISKO ETA BURTSAKO ZENTROETAKO LANGILEEI, BILBOKO UDALEKO EUSKARA-ZERBITZUARI, 010, BIT, UPV-EHU, DEUSTUKO UNIBERTSITATEA, METRO BILBAO** eta **EL CORREORI; NURIA, JAVI** eta **YOLANDARI** —edizio honetan jaialdiaren irudia diren hiru aktore gazteri—, **ALICIARI**, bera baita makillajearen erruduna, eta **TERE ORMAZABALI**, bera izan da-eta argazkiak atera dituen; **NEMONICA-ri**, beraiek arduratu direlako jaialdiko irudi- eta publizitate-arazo guztiez; **VKri**, komunikazioaren zama eramán duelako; gure estresa jasan diguten eta jasan ez diguten lagunei; **ARRIAGA** eta bere **LANGILE-TALDEARI; BILBOROCK** eta bere **LANGILEEI**, eta, noski, **LA FUNDICION-ARI**, zorionak lan nekaezin horregatik; **BILBOARTERI**, behar dugun guztian laguntzen digulako; **IRENE PARDO, ARANTZA ARRAZOLA, VICTOR** eta **NATALIA** eta **DAVID BARBERORI; KAZETERIEI** —Jaialdiaz asko eta ondo hitz egingo dutela espero dugu—, eta aktoreei eta BAD gauzatzen duten pertsona guztiei.

Baina batez ere, eta ez gara aspertuko behin eta berriz esaten, eskerrik asko **PUBLIKOARI**, zuei esker bakarrik gauzatzen baita BAD. Goza ezazue gogotik, eta datorren urtean ikusiko dugu elkar, gehiago izango gara eta, gainera, orduan.

## Bilboko Udalaren Kultura eta Turismo Saila

Queremos agradecer a todos vosotros y vosotras, al **PÚBLICO DEL TEATRO**, que estéis ahí, que hagáis posible que sobre las tablas se cuenten historias y, por supuesto, agradecer el trabajo de todos los que han hecho posible que, por cuarto año, consecutivo el BAD haga de Bilbao la referencia del teatro. **LAS COMPANÍAS** que con ilusión estrenan y experimentan para hacernos llegar lo más nuevo de dos artes milenarias como el teatro y la danza. Y gracias, cómo no, a los **TÉCNICOS DE SONIDO Y DE ILUMINACIÓN**; al equipo de **TRABAJADORES DE LOS CENTROS DE SAN FRANCISCO Y LA BOLSA**; al **SERVICIO DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO; 010, BIT, UPV-EHU, UNIVERSIDAD DE DEUSTO, METRO BILBAO** y a **EL CORREO**; a **NURIA, JAVI** y **YOLANDA**, tres jóvenes actores que son la imagen del festival en esta edición; a **ALICIA**, que es la culpable del maquillaje y a **TERE ORMAZABAL** que ha sido quien los ha fotografiado; a **NEMONICA** que se ha encargado de toda la imagen y publicidad del festival; a **VK** que se encarga de la comunicación, a los amigos y amigas que nos aguantan el estrés y a los que no nos lo aguantan; al **ARRIAGA** y a su **EQUIPO**; al **BILBOROCK** y a sus **TRABAJADORES**; y cómo no, a **LA FUNDICIÓN**: bravo por ese trabajo incansable, a **BILBOARTE** que nos apoya siempre que lo necesitamos; a **IRENE PARDO, ARANTZA ARRAZOLA, VICTOR Y NATALIA Y DAVID BARBERO**; a los **PERIODISTAS**, que esperamos habléis mucho y bien del Festival y de sus actores; y a todos aquellos y aquellas que hacen posible el BAD. Pero, sobre todo, y aunque nos repetimos no nos cansamos, al **PÚBLICO**, gracias a vosotros y vosotras el BAD es posible, disfrutadlo y nos vemos el año que viene que seremos más.

## Area de Cultura y Turismo del Ayuntamiento de Bilbao

## PREZIOAKPRECIOS

- BILBOROCK\_8€
- ARRIAGA
- \_El saludador\_10€\_8€\_6€
- \_Icars\_10€\_8€\_6€
- \_Opera de los 4 cuartos\_24€\_18€\_12€\_9€
- LA FUNDICION\_8,5€

## DESKONTUAKDESCUENTOS

- \_20 pertsonatik gorako taldeak (ARRIAGA ANTZOKIA soilik) Grupos de 20 o más personas (sólo TEATRO ARRIAGA)\_20%.
- \_Club Lector El Correo\_20%.
- \_Aurretiko salmenta. Bilborock. Ikuskizun bakoitzeko 2€ Compra anticipada BILBOROCK\_Descuento 2€ cada espectáculo.
- \_Auzoko Txarteldegia. Barrutietako Udaltegiek Kontsultatu La taquilla del Barrio. Consultar en Centros Cívicos.

## BESTERIKOTRAS NOTAS

- \_Saioan zehar telefono mugikorrak itzali, arren Desconecte su teléfono móvil durante las representaciones.
- \_Ez da itzulketarik onartuko. Sarrerak erosterakoan, beroien datuak egiazta itzazu Compruebe la fecha de las entradas al adquirirlas. No se admiten devoluciones.
- \_Ezin izango da antolatzaileen baimenik gabeko argazkirik edo filmaziorik egin No se permitirá obtener fotografías ni efectuar filmaciones sin la autorización de la organización.
- \_Antolatzaileek egitarauaren edozein espektu aldatzeko eskubidea gordetzen dute La organización se reserva el derecho a variar cualquier aspecto del programa.

# PRESENTACION

Llega por cuarto año consecutivo el BAD – BILBAO ANTZERKIA DANTZA- FESTIVAL DE TEATRO Y DANZA CONTEMPORÁNEA DE BILBAO. Esta muestra de espectáculos pretende acercar al público la pasión por las Artes escénicas, abarcando una amplia gama de géneros. El Festival centra especialmente su atención en el sector más actual y en las nuevas creaciones, con propuestas que no es facil ver en circuitos más convencionales y se preocupa especialmente de la búsqueda de nuevos públicos, sobre todo en el ámbito juvenil.

El BAD se celebra en Bilbao desde el 26 de octubre al 3 de noviembre, 9 días de teatro actual y propuestas contemporáneas en diversos locales públicos y privados. El Teatro Arriaga, el Bilborock, La Fundación Aretoa verán como compañías muy conocidas y otras no tanto, de aquí y de fuera presentan sus trabajos más frescos, actuales y originales.

No se puede negar que además de la disponibilidad que el público joven muestra con el teatro y la danza, a la hora de la verdad cuesta acercarse a la taquilla; habrá, por tanto, propuestas para todos los gustos y precios para todos los bolsillos solo queda comprar la entrada, sentarse y disfrutar de la magia de la escena.

Nuevas creaciones, ópera contemporánea, hombres que bailan, mujeres que actúan, actores famosos y noveles. Estrenos, cursos, directores reconocidos, espectadoras expertas, textos lógicos y absurdos a la vez, temas de hoy en día, preocupaciones personales, risas, llantos, todo debería hacer del BAD un punto de encuentro que cada año va aumentando sus visitantes, y que se está convirtiendo sin duda en la referencia más actual de las Artes escénicas en Bilbao.

Nos vemos en el BAD.



# EGITARAU A PROGRAMACION

## BILBOROCK\_

- URR27OCTIgaDom\_20.00\_ATRABILIS\_micomicon
- URR28OCTAleLun\_20.00\_GLOBACILACION\_hortz muga\_ESTRENALDIA BAD ESTRENO BAD
- URR31OCTOsgJue\_20.00\_OVEJA NEGRA (Del cielo a pedradas)\_la dinamika & eletiope
- AZA01NOVOsIVie\_20.00\_MUNDOPOLSKI - Extragedia o Rebelión\_fti (fabrica teatro imaginario)
- AZA02NOVLarSáb\_20.00\_TREN DE MERCANCÍAS HUYENDO HACIA EL OESTE\_teatro animalario\_ESTRENALDIA EUSKADIN ESTRENO EUSKADI

## ARRIAGA\_

- URR29OCTAarMar\_20.00\_EL SALUDADOR\_traspasos & cachivache\_ESTRENALDIA EUSKADIN ESTRENO EUSKADI
- URR30OCTAazMie\_20.00\_ICARS\_res de res & en blanc
- AZA02NOVLarSáb\_20:00+AZA03NOVIgaDom\_19:00\_LA OPERA DE CUATRO CUARTOS\_focus & grec & salamanca 2002

## LA FUNDICIÓN\_

- URR26OCTLarSáb+URR27OCTIgaDom\_20.30\_IN SITU\_cía lapsus
- AZA02NOVLarSáb+AZA03NOVIgaDom\_20.30\_TRES TRISTES STRIPTEASES\_damián Muñoz danza\_ESTRENALDIA BAD ESTRENO BAD
- URR21-25OCT\_10.00-14.00\_CURSO DE DANZA\_alexis eupierre

# OHARRAKNOTAS

## AURRETIKO SARREREN SALMENTA ENTRADAS POR ANTICIPADO

Taquillas Bilborock\_Arriaga\_La Fundicion Aretoetako Txarteldegietan

Club Lector El Correo [Rodriguez Arias, 43]

Telefono bidezko erreserbak Arriaga Antzokiko ikuskizunetarako soilikSolo existe reserva telefónica para los espectáculos del Teatro Arriaga.

Teleka Zerbitzua (Arriaga soilik) Servicio Teleka (Sólo Arriaga)

## EMANALDI EGUNEKO SALMENTA VENTA DE ENTRADAS EL DIA DE LA FUNCION

Aretoetako txarteldegietan En las taquillas de las Salas

## ABONOAK ABONOS

40€>Honek 38€ko aurrezkia suposatzen du. Honako emanaldietarako soil-soilik.Este abono supone un ahorro de 38€ para los siguientes espectáculos:

BILBOROCK\_URR27OCTIgaDom\_20.00\_MICOMICON\_ATRABILIS

BILBOROCK\_URR28OCTAsiLun\_20.00\_HORTZ MUGA\_GLOBACILACION\_ESTRENALDIA BAD ESTRENO BAD

ARRIAGA\_URR29OCTAsrMar\_20.00\_TRASPASOS KULTUR & CACHIVACHE\_EL SALUDADOR\_ESTRENALDIA EUSKADIN ESTRENO EUSKADI

ARRIAGA\_URR30OCTAszMie\_20.00\_RES DE RES & EN BLANC\_ICARS

BILBOROCK\_URR31OCTOsgJue\_20.00\_LA DINAMIKA & ELETIOPE\_OVEJA NEGRA (Del cielo a pedradas)

BILBOROCK\_AZA01NOVOsIVie\_20.00\_FTI (Fabrica Teatro Imaginario)\_MUNDOPOLSKI - Extragedia o Rebelión

BILBOROCK\_AZA02NOVLarSáb\_20.00\_TEATRO ANIMALARIO\_TREN DE MERCANCÍAS\_ESTRENALDIA EUSKADIN ESTRENO EUSKADI

# TEATROFORUMDANZAFORUM

Ikuskizun bakoitzaren bukaera Al finalizar cada espectáculo

 **BILBOROCK\_**presentado por David Barbero-k aurkeztua

ATRABILIS\_micomicon\_Mariano Llorente

GLOBALACION\_hortz muga\_Aitor Aguado\_Arantza Goikoetxea\_Argia Gardeazabal\_Gorka Zero

OVEJA NEGRA (Del cielo a pedradas)\_la dinamika & eletiope\_Eguzki Zubia

MUNDOPOLSKI - Extragedia o Rebelión\_fti (fabrica teatro imaginario)\_Alex Gerediaga\_Jon Geregiaga\_Na Gomes

TREN DE MERCANCÍAS\_teatro animalario\_Andrés Lima\_Javier Gutiérrez\_Noelia Castaño\_Roberto Alamo\_Nathalie Poza\_Alberto San Juan

 **ARRIAGA\_**presentado por David Barbero-k aurkeztua

EL SALUDADOR\_trasposos & cachivache\_Andrés Lima\_Mikel Gómez de Segura\_Susana Hernáiz\_Iván Martínez\_Alfonso Torregrosa

ICARS\_res de res & en blanc\_Marta Barcelo\_Biel Jordá

 **LA FUNDICIÓN\_**

IN SITU\_cía lapsus\_Alexis Eupierre

TRES TRISTES STRIPEASES\_damián muñoz danza\_ Damián Muñoz

HAMASEI

DIECISEIS

# ATRABILIS



BILBOROCK\_URR27OCT\_20:00  
MICOMICON

( C U A N D O E S T E M O S M A S T R A N Q U I L A S )

ZuzendaritzaDirección Laila Ripoll 

 AktoreakActores Jose Luis Patiño\_Yiyo Alonso\_Mariano Llorente\_Juan Alberto López

IraupenaDuración 90 Min. 

 ForumForum Mariano Llorente

Laila Ripoll antzerki-egileak umorea, indarkeria-zatiak, gezurrezko negarrak, aurpegiratutako kontu zikinak eta bat-batean botatako egiak erabili ditu **ATRABILIS** lanean lurralde eszeniko emankor-emankorra sortzeko. **MICOMICON** taldeko lau antzezlek interpretatzen dituzte laurogei urteko hiru ahizparen eta neskamearen rolak. Horrela bada, birjinak, astakiloak, inuzenteak eta elbarriak euren bizitza ekarriko dute gogora, arranguraz eta gorrotoz beterik, horietako baten senarra zenaren gaubeilan. Horra hor, baten batek hildako umearena, katuaren heriotzarena, izan ziren desleialtasunak eta eguneroko engainuak. Borgesen, Allan Poeren, Cervantesen eta Becquerren eraginak eragin, gehien bat, bere bizitzan oinarritu da egilea.

Humor impío, retazos de violencia, llantos de mentira, reproches sucios y verdades escupidas componen un territorio escénico muy fecundo, creado por la autora teatral Laila Ripoll en **ATRABILIS**. Cuatro actores de la Compañía **MICOMICON** interpretan a tres hermanas octogenarias y a su criada -la virgen, la burra, la idiota y la inválida- que repasan sus vidas y rumian bilis y rencor en el velatorio del marido de una de ellas. Un bebe asesinado, la muerte de un gato, infidelidades pasadas y engaños cotidianos. Una historia de esperpentos que bebe de Borges, de Allan Poe, de Cervantes, de Bécquer, pero sobre todo, de la propia vida...

BOST

CINCO

# GLOBALIZACION

HORTZ MUGA/HIRUGARREN MUNDUA ETA BAKEA

BILBOROCK\_URR28OCT\_20:00



O C O M O P E N S A R G L O B A L M E N T E Y A C T U A R L O C A M E N T E

Zuzendaritza **Dirección** Hortz Muga Teatroa

**AktoreakActores** Arantza Goikoetxea\_Argia Gardeazabal\_Gorka Zero

Iraupena **Duración** 60 Min.

**ForumForum** Aitor Aguado\_Arantza Goikoetxea\_Argia Gardeazabal\_Gorka Zero

**GLOBALIZAZIOA**, berez, ez da, ez ona, ez txarra. Kontua hartaz egiten den erabilera da. Parodia eta umorearen erdibidean jarrita, besteak beste, inmigrazioa, kostunbrismoa eta hedabideak izango dira emakume bik eta gizon batek (Arantza Goikoetxea, Argia Gardeazabal eta Gorka Zero) errepasatuko dituzten gaiak.

**HORTZMUGA TEATROAK** eszenatokitik egiten du, horrela, gaurko munduaren salaketa, modu berezian egin ere, ikusleak barre-algaratik hausnarketara eramaten ditu eta. Gure errealitateak dituen alde onak eta txarrak agertuko dizkigute, ikuspuntu berrietatik, arau-hausleetatik eta batzuetan zoroetatik.

La **GLOBALIZACIÓN** no es algo en sí bueno ni malo, el problema está en el uso que se hace de ella. La inmigración, el costumbrismo, los medios de comunicación, etc., son analizados entre la parodia y el humor por dos mujeres y un hombre -Arantza Goikoetxea, Argia Gardeazabal y Gorka Zero-. La compañía **HORTZMUGA TEATROA** denuncia desde el escenario el presente mundial, mediante una opinión muy peculiar que conduce al espectador de la carcajada a la reflexión. Todo un tratado sobre los beneficios y los inconvenientes de la realidad que nos rodea, con innovadores, transgresores y en ocasiones alocados puntos de vista.

SEI

SEIS

# CURSO DE DANZA

LA FUNDICION\_URR21-25OCT\_10:00-14:00

ALEXIS EUPIERRE



Alexis Eupierre izango da La Fundación aretoan egingo den ikastaroaren irakaslea. Koreografo eta dantzari hau Bartzelonako Antzerki Institutoan hasi zen bere heziketa eta 1.990 urtean New York-eko “The Julliard School” Musika eta Dantza Unibertsitatean graduatu zen. Eupierre espainiar dantza garaikidearen sortzailenetarikoa dugu eta esperientzia handiko dantzari, irakasle eta koreografoa.

Alexis Eupierre, uno de los principales creadores de la danza contemporánea española, impartirá un curso en La Fundación Aretoa, del 21 al 25 de octubre. Este coreógrafo y bailarín inició su formación en el Instituto del Teatro de Barcelona y, posteriormente, en 1990 se graduó en la Universidad de Música y Danza de Nueva York “The Julliard School”. Su experiencia como intérprete, profesor y coreógrafo en compañías internacionales y su búsqueda de un vocabulario coreográfico personal de prestigio avalan su trabajo.

HAMABOST

QUINCE

# TRES TRISTES STRIPTASES



LA FUNDICION\_AZA02-03NOV\_20:30  
LAPSUS



ZuzendaritzaDirección Damián Muñoz

AntzezleakIntérpretes Virginia García\_Jorge Jáuregui\_Damián Muñoz

IraupenaDuración 60 Min.

ForumForum Damián Muñoz

Animalia baten irrika eguneroko indarra da, aldez aurretik ikus daitekeena. Dena dela, gizakiarena arriskuari aurre egiten dion indar itzel bihur daiteke. Gizakiaren irrika, fantasia agortezin batek elikaturik, neurritz gainekoa izan daiteke. Ozenki esaten ez ditugun ametsai, fantasiei eta barruko ahotsei buruzkoa da **“TRES TRISTES-STRIPTEASES”** lana. 2001ean, Kanarietako Dantza Garaikidearen Nazioarteko Lehiaketan, aurreko lanaz, “79 pasos” izenekoaz alegia, lehen saria lortu zuen Damian Muñoz dantzari bilbotarra dugu koreografia honen zuzendari eta dantzaria.

El deseo en el animal es una fuerza previsible y cotidiana, sin embargo, en el ser humano se transforma en una potencia excitante que desafía el peligro y se convierte en algo desmesurado, porque se alimenta de una fantasía inagotable. De las voces más íntimas, de las fantasías y de los sueños que nunca se expresan en voz alta habla **“TRES TRISTES-STRIPTEASES”**, una coreografía dirigida e interpretada por el bailarín vasco Damián Muñoz, primer premio en el Certamen Internacional de Danza Contemporánea de Canarias del 2001 por su anterior trabajo “79 pasos”.

HAMALAU

CATORCE

# OVEJA NEGRA



BILBOROCK\_URR31OCT\_20:00  
LA DINAMIKA Y ELETIOPE



( D E L C I E L O A P E D R A D A S )

ZuzendaritzaDirección Eguzki Zubia

AktoreakActores Begoña Crespo\_Sofía Oreja\_Alberto Quintana\_Bernabé Tebar

IraupenaDuración 50 Min.

ForumForum Eguzki Zubia

**LA DINAMIKA & ELETÍOPE**ren eskutik dantza eta antzerki-ikuskizun batekin gozatzeko aukera izango dugu. Aurkeztuko diguten errealtatean bizilagunek akats fisiko eta psikiko izugarriak dituzte. Hori dela eta, ez dute gure moduan ulertzen “anormaltasuna” eta, hortaz, askatasun osoz berba egiten dute euren akatsez, euren ametsak ematen dieten askatasunaz, hain zuzen. Eguzki Zubia zuzendari, lau antzezlek (gizonezko bi eta andrazko bi) erakutsiko digute umorea izan daitekeela sufrimenduaren aurkako defentsarik onena. Dantza, antzerkia eta poesia bere egiten dituen lengoaia berria, giza komunikazioaren unibertsoa azaltzen saiatzeko.

La **DINAMIKA & ELETÍOPE** llevan a escena un espectáculo de danza-teatro que habla de un realidad imaginaria ¿o no tanto?, en la que los seres que la habitan poseen tales taras físicas y psicológicas que, ajenos al complejo de “anormalidad”, muestran sus rarezas sin reparos, con la libertad que sólo les permiten sus sueños. Eguzki Zubia dirige dos actrices y dos actores que van mostrando a lo largo de diferentes escenas, cómo el humor puede llegar a ser la mejor defensa contra el sufrimiento. Un lenguaje nuevo entre la danza, el teatro y la poesía que trata de explicar el universo de la comunicación humana.

ZAZPI

SIETE

# MUNDOPOLSKI



BILBOROCK\_AZA**01NOV**\_20:00  
FTI



E X T R A G E D I A O R E B E L I O N

ZuzendaritzaDirección Alex Gerediaga 

 AktoreakActores Na Gomes\_Miren Gaztañaga\_Miriam K. Martxante

IraupenaDuración 75 Min. 

 ForumForum Alex Gerediaga\_Jon Geregiaga\_Na Gomes

**FÁBRICA DE TEATRO IMAGINARIO** talde arau-hausleak azken muntaian irudikatutako mundu baten estetika agertzen digute. Eszenatokia gatazka bihurtzen da eta berorretan umorea, itxaropenik eza, alaitasuna, desenkantua eta beste sentipen asko azaltzen dira. Jon Gerediagaren eta Unai Garateren testuak pailazo troskista nostalgiko (Mundo) baten, ideiak argi dituen neskato (Mika) baten eta ikusleen eta argumentuaren arteko zubi den Corifearen historia sinple, eztitsu eta magikoa kontatzen du. Zurezko objektuak, txotxongiloak eta panpinak, sakoneko mezu hau dutenak: "ez saiatu mundua aldatzen eta ahalegindu munduak zu ez aldarazteko".

La transgresora compañía **FÁBRICA DE TEATRO IMAGINARIO** recrea en su último montaje propio la estética de un mundo imaginario. El escenario se convierte en una batalla en la que confluyen sentimientos como el humor, la desesperanza, la alegría y el desencanto. El texto de Jon Gerediaga y Unai Garate cuenta la historia sencilla, tierna y mágica de un payaso trotskista y nostálgico -Mundo-, una niña de ideas muy claras -Mika- y Corifea, el puente entre los espectadores y la trama. Objetos de madera, marionetas y muñecos con un mensaje de fondo: "renuncia a cambiar el mundo y lucha porque el mundo no te cambie a ti".

ZORTZI

OCHO

# IN SITU



LA FUNDICION\_URR**26-27OCT**\_20:30  
LAPSUS

ZuzendaritzaDirección Alexis Eupierre 

 AntzezleakIntérpretes David Espinosa\_Félix Santana\_Gustavo Lesgart\_Iva Horvat

IraupenaDuración 60 Min. 

 ForumForum Alexis Eupierre

Pertsona baten nortasunean lekuak, familiak, kulturak eta garaiak eragina dute, bizitza guztirako gainera. David Espinosaren, Félix Santanaren, Gustavo Lesgarten eta Iva Horvaten keinu kasual eta apurtuak tartekatuta egiten dira hitzekin eszena eder-ederretan. Alexis Eupierre da koreografia zoragarri honen egile eta zuzendaria. Ikuskizun argitsua, umore bero ia etengabea duena eta ia osorik giza faktorean oinarritua dagoena.

El lugar, la familia, la cultura y el tiempo son factores que determinan la identidad de un individuo a lo largo de su vida. Los gestos casuales y rotos de David Espinosa, Félix Santana, Gustavo Lesgart e Iva Horvat se intercalan y se suceden con la palabra, en escenas de extraordinaria belleza. Alexis Eupierre es el autor y director de esta maravillosa coreografía que conforma un espectáculo inteligente, con un humor cálido, casi cortante, que se basa fundamentalmente en el factor humano.

HAMAIRU

TRECE

LA OPERA DE 4 CUARTOS

ARRIAGA\_AZA02NOV\_20:00 / AZA03NOV\_19:00  
FOCUS & GREC & SALAMANCA 2002



ZuzendaritzaDirección

Calixto Beito

AntzezleakIntérpretes

Cecilia Rossetto\_Compañía Romea\_Lluís Vidal\_Orquesta de Cambra del Teatre Lliure

IraupenaDuración

160 Min.

Calixto Beito zuzendaria ostera ere etorriko da Bilbora Bertolt Brechtek eta Kurt Weillek osatutako tandem dramaturgikoaren lan batekin. Klasikoetara hurbiltzen da, berriz ere, eszenaratzea gaurkotuta. Cecilia Rosseto antzezle argentinarrak eta Romea talde kataluniarrak XX. mendeko antzerki musikalaren pieza eder bixia eszenaratuko dute horrela Bilbon. Nazien aurreko Alemaniaren miseria guztiak islatzen dituzte lan honetan. Musika zuzenean eskainiko du Orquestra de Cambra Teatre Lliure talde kataluniarrak. Prostitutak, burges ohoretsuak diruditen lege-hausleak opera-antzoki handi batetik irten berriak izango balira bezala, polizia ustelak eta eskeko behartsuak ditugu erdi-ipurdiko gizarte horren erakusgarri.

El director Calixto Beito llega de nuevo a Bilbao con una obra del tandem dramático formado por Bertolt Brecht y Kurt Weill en la que vuelve a acercarse a los clásicos adaptando la puesta en escena a los tiempos actuales. La actriz argentina Cecilia Rosseto y la compañía catalana Romea llevan a escena una de las revelaciones del teatro musical del siglo XX, que refleja todas las miserias de la Alemania pre-nazi. La música en directo correrá a cargo de la formación catalana Orquestra de Cambra Teatre Lliure. Prostitutas, delincuentes que parecen honorables burgueses, como acabados de salir de una representación de cualquier gran teatro de ópera, policías corruptos y miserables mendigos retratan una sociedad del tres al cuarto...

TREN DE MERCANCIAS

BILBOROCK\_AZA02NOV\_20:00  
TEATRO ANIMALARIO



H U Y E N D O

H A C I A

E L O E S T E

ZuzendaritzaDirección

Andrés Lima\_Alberto San Juan

AktoreakActores

Javier Gutiérrez\_Noelia Castaño\_Roberto Alamo\_Nathalie Poza\_Alberto San Juan

IraupenaDuración

80Min.

ForumForum

Andrés Lima\_Javier Gutiérrez\_Noelia Castaño\_Roberto Alamo\_Nathalie Poza\_Alberto San Juan

Erabat egunerokoak diren pertsonaiak dantzan eta kantuan maitasunaren ohorez; bien bitartean lepoa zapaltzen diote lagun hurkoari. Topa egitera gonbidatzen zaituzte pertsonaia alai eta atsegin hauek eta, halako batean, mehatxatu egiten zaituzte atzerritarra izateagatik. Orain 30 urte maitasuna agortu bazitzaien ere, hor segitzen dute elkarriz "maite zaitut" esaten bikoteek. Zazpi pieza labur, begirada komiko eta sarkastikoaz giza harremanen azterketa egiteko. **ANIMALARIO** taldeak kaleko herritarrari buruzko tragikomedia egiazkoa eta sarkastikoa aurkeztzen digute, Alberto San Juan eta Andrés Lima zuzendari.

Personajes absolutamente cotidianos que bailan y cantan al amor mientras le pisan el cuello a su compañero. Personajes afebados que le invitan a brindar mientras le amenazan por ser extranjero. Parejas que se siguen diciendo te quiero a pesar de haber agotado su amor treinta años atrás. Siete piezas cortas que analizan con una mirada cómica y sarcástica las relaciones humanas. La compañía **ANIMALARIO**, dirigida por Alberto San Juan y Andrés Lima, representa una auténtica e irónica tragicomedia sobre el ciudadano medio.

# EL SALUDADOR



# TRASPASOS & CACHIVACHE



Zuzendaritza **Dirección** Mikel Gómez de Segura 

 **AktoreakActores** Susana Hernáiz\_Iván Martínez\_Alfonso Torregrosa

**IraupenaDuración** 75 Min. 

 **ForumForum** Mikel Gómez de Segura\_Susana Hernáiz\_Iván Martínez\_Alfonso Torregrosa


Roberto Cossa argentinar dramaturgo handiak umore basatiz beteriko komedia aurkeztuko digu. Bikote banandu bitxi baten historia kontatzen digu lan horretan. Batetik **SALUDADOREA** iraultzen defendatzaile amorratua dugu eta, bestetik, Marussa. Biak elkartzen direnean izaten diren egoerak gizarte kaotikoaren kritika zorrotzak dira. Antzezleak Susana Hernáiz, Alfonso Torregrosa eta Iván Martínez dira eta zuzendaria Mikel Gómez de Segura. Maitasunez eta umorez beteriko lan honetan esaldi bakoitzak justifikatzen du inguru hurbilarekiko elkartasunaz hitz egitea.

El gran dramaturgo argentino Roberto Cossa presenta una comedia de humor salvaje, que cuenta la historia de la particular pareja formada por **EL SALUDADOR**, un ferviente defensor de las revoluciones, y su esposa Marussa de la que vive separado. Sus encuentros rigen un espectáculo cargado de crítica hacia una sociedad caótica. Una obra interpretada por Susana Hernáiz, Alfonso Torregrosa e Iván Martínez y dirigida por Mikel Gómez de Segura, en la que cada frase es una justificación para hablar de la solidaridad con el entorno cercano, con un envoltorio de amor y mucho, mucho humor.

HAMAR

DIEZ

# ICARS



# RES DE RES & EN BLANC

Zuzendaritza **Dirección** Marta Barceló\_Biel Jordá\_Xisco Segura 

 **AntzezleakIntérpretes** Marta Barceló\_Biel Jordá

**IraupenaDuración** 65 Min. 

 **ForumForum** Marta Barcelo\_Biel Jordá

**RES DE RES** eta **EN BLANC** batu dira eta hona hemen batera egin duten lehen proiektua: **ICARS**. Marta Barceló eta Biel Jordá dira ikuskizun honen zuzendariak eta antzezleak. Noizbait denok izan ditugun bikote baten zikloak aurkeztu dizkigute: grina, maitasuna, desenkantua, banaketa eta berriro ere elkartzea. Sentipen horiek guztiak hitzik gabeko eszenetan aurkeztu dituzte zirkuko teknikak medio: trapezioa, soka,... Benetan ezin hobeto tartekatzen dituzte teknika horiek interpretazioarekin eta horrela keinu bakoitzak esangura hartzen du. Ordubete magikoa bermatuta dago.

**RES DE RES** y **EN BLANC** se han unido para crear su primer proyecto en común: **ICARS**. Marta Barceló y Biel Jordá dirigen e interpretan este espectáculo que recorre los ciclos de la relación en una pareja, que todos hemos vivido alguna vez en la vida: la pasión, el amor, el desencanto, la separación y el reencuentro. Estos sentimientos se expresan sin palabras, mediante escenas con técnicas circenses como el trapecio, la cuerda ,etc., que se mezclan magistralmente con la interpretación dotando de sentido a cada gesto. Una hora mágica garantizada.

HAMAIIKA

ONCE



antolatzaileak:  
organizan:



**BILBAO**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO



KULTURA ETA TURISMO SAILA  
ÁREA DE CULTURA Y TURISMO



babesleak:  
patrocinan:

**EL CORREO**



metro bilbao

laguntzaileak:  
colaboran:



**La Fundación**  
ARRETOA